

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuaren kostu guztiak gure egitasmoa aurrera eraman ahal izateko sortuko dugun app-rekin lotutakoak dira. Gure helburua ahalik eta kostu gutxien izatea da, enpresarentzat irabazi gehiago lortu ahal izateko eta horrela azkarrago haz dadin.

Gure kostu nagusi eta oso garrantzitsu bat gure bulegoa izango dugun lokalaren alokairua izango da, kostu finko bat izango dena. Kostu hori balio handiena izango duena izango da, gehien balioko duena. Gainera, kostu aldakorrek ere ditugu: Interneteko konektibitatea izateko tarifa, kontratatuko ditugun gigen arabera kostua handiagoa edo txikiagoa izango dena; bulegoan izango ditugun ordenagailuak eta ordenagailuekin lotuta dauden gauza guztiak (hala nola arratoiak, pendriveak...) behar dugun kantitatearen arabera gehiago edo gutxiago kostatuko dutena; eta kartelak eta panfletoak egin ahal izateko behar ditugun papera eta inprimagailuak (baita inprimagailuen tinta ere). Ikastetxeetara txarлак ematera joan ahal izateko behar izango dugun garraiobideren karburantea ere ordaindu beharko dugu, eta horrek kostu garrantzitsu bat izatea eragiten du.